

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

NBIk emakumeen aurkako indarkeria saihesteko jardueren memoria aurkeztu du

2010ean, SOS Nafarroa 112 larrialdietarako telefonoak 510 gertaera erregistratu zituen "tratu txarreatatik larrialdi" gisa sailkatu zirenak

Martes, 14 de junio de 2011

"Emakumeen aurkako indarkeriaren artapenean eta prebentzioan koordinazio eraginkorra izateko erakundeen arteko akordioa"ren jarraipena egiten duen batzordeak bilera egin du gaur goizean. Bilera horretan, 2010ean alor horretan buruturiko jardueren memoria onetsi dute, Berdintasunerako Nafarroako Institutuak (NBI) aurkeztutakoa. Bileraren buru María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako jarduneko kontseilaria izan da.

Memorian jarduera hauek jaso dira, besteak beste: erakundeen arteko koordinazioa, herritarren sentsibilizazioa, profesionalen prestakuntza, biktimentzako informazioa eta aholkularitza, laguntza neurriak, neurri polizialak eta judizialak.

2010ean, Nafarroako Gobernuko larrialdietarako telefonoak (SOS Nafarroa 112) "tratu txarreatatik larrialdi" gisa sailkatu ziren 510 gertaera jaso zituen guztira (2009an baino 59 gehiago). Nafarroako Gobernuaren harrera baliabideek (larrialdi zentroak, harrera etxeak eta tutoretzapeko etxebizitzak) ere 192 pertsona artatu zituzten, horietatik 84 emakume helduak izan ziren eta 108 adingabeak.

Polizia taldeek 1.210 salaketa erregistratu zituzten iaz (2009an baino % 7,91 gutxiago). Horrez gain, Nafarroako 31 udal eta sei mankomunitate telelaguntza sistemari atxikita daude, eta horri esker 18 emakume babestu ziren. Foruzaingoak ezarritako Laguntzarako Gizarte Plana eskuko telefono bidezko alarma sistema da eta, 2010ean, 96 erabiltzaile izan zituen (2009an baino 9 gehiago); bi emakumeri bizkartzain pertsonal bana jarri zitzaizen eraso jasotzeko arriskua handia zutelako.

Iruñeko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko 1. Epaitegian zigor arloko 928 salaketa jaso ziren ustezko erasotzaileen aurka. 1.223 auzi hasi ziren, 180 babesteko agindu eskatu ziren (107 eman eta 73 ukatu ziren) eta 243 salaketa baztertu ziren (2009rekin alderatuta % 7,3 murriztu dira). Arlo zibilean (seme-alaben jagoletzarako, bisitak egiteko araubidearen, mantenu-pentsioaren eta bestelakoen neurriak zehazteko) 187 auzi hasi ziren (2009an baino % 32,6 gehiago).

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak zigor arloko 942 auzi erregistratu zituen, eta biktimaren 309 salaketa baztertu edo atzera bota ziren atestatuan edo epaile taldearen aurrean azaltzean. Laguntza letratuko guardia-zerbitzu iraunkorrak 670 kasutan lagundu zuen 2010ean.

"Emakumeen aurkako indarkeriaren artapenean eta prebentzioan koordinazio eraginkorra izateko erakundeen arteko akordioa" iragan abenduaren 17an adostu zuten eta akordio horren jarraipena egiteko batzordea hauek osatzen dute: Nafarroako Gobernuko Administrazioako ordezkariak, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusikoek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkari gisa, Fiskaltzakoek eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak. Akordioaren helburua genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ematen dieten erakundeen arteko koordinazio ezin hobea lortzea eta Foru Erkidego osoan jarduteko ildo homogeenak ezartzea da.